

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:
ARTXANDAPE IKASTOLA

Ikastetxearen kodea:
014505

Data:
2023(e)ko ekainaren 16(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Kokapena

Artxandape Ikastola Bilboko Elizbarrutiak sustatutako ikastetxea da, eta 1980an ekin zion bideari, Deustuko Erribera auzoan. Gero, 1985ean, Uribarri auzoan eraikitako eraikin berrira aldatu zen.

Mailak

Artxandape Ikastolan uste dugu pertsonen inplikazioa dela funtsezko balioa. Erronka berri bakoitzari aurre egiteko gaitasunari esker, ezarritako helburu estrategikoak lor ditzakegu.

Artxandape Ikastolako langileek 45 irakasle eta Administrazio eta Zerbitzuetako 5 langile dituzte. Guztira 50 langile dituztela. Garbiketa eta jantokiko zerbitzua azpikontratazioaren bidez ematen da.

Irakasleak hiru taldetan banatzen dira funtzionalki:

- Haur Hezkuntzako Klaustroa
- Lehen Hezkuntzako klaustroa
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako klaustroa

Talde horietako bakoitzak Koordinazio Pedagogikorako Talde bat du, eta Zuzendaritza Taldeko kide ere bada. Talde horren lana etapa bakoitzaren funtzionamendua zuzentzea da. Zuzendaritza Taldea Pastoraltzaren eta Orientazioaren arduradunak osatzen du, eta horiek zentroaren nortasuna indartzen dute.

Ikasleria

Gaur egun, Artxandape Ikastola 28 ikasgelaz osatutako ikastetxe itundua da, eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko hezkuntza-etapetan 2 eta 16 urte bitarteko ikasleei eskaintzen die hezkuntza-zerbitzua, bi lerrotan banatuta. Guztira 729 ikasle eta 42 irakaslez osatzen dute.

Ikasleen beharrei erantzuteko, Ikastolan orientazio-sail bat dago, eskola inklusiboko profesionalek osatua. Irakasleak Lotura Emozional Kontzientearen (VEC) eredu formakuntza jasotzen ari dira, eta orientazio-zerbitzuko hiru pertsonak proiektua indartzen dute. Hezkuntza-laguntzako hiru adituk osatzen dute zerbitzua.

Ikastetxeak eredu hirueledunean ematen du irakaskuntza (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), baina irakas-hizkuntza euskara da. Gaur egun, ingelesarekin hasten da 2 urteko geletan (30 minutu astean), eta curriculumetik kanpoko edukiak ematen dira Lehen Hezkuntzan.

Horrez gain, atzerriko bigarren hizkuntza (frantsesa) eskaintzen hasten da DBH1etik aurrera.

Familiën maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak

Ikastolako maila sozioekonomikoa ertain-altua da, hau ondorioztatzeko ebaluazio diagnostikoetako emaitzetan oinarritzen gara.

Ikastetxearen ikuspegia

Artxandape Ikastolaren Misioa, Elizbarrutiko Bizkaiko ikastetxeen parte dena, hezkuntza integrala, eleanitza eta kalitatezkoa eskaintzea da, ikasleen eta familien zerbitzura, euskal kultura, euskara eta Ebanjelioaren balioak erreferentziazat hartuta.

Erreferentziako ikastetxea izan nahi dugu, honako hauek dituelako:

- Beren ikaskuntzaren protagonista diren ikasleak, ilusioz beteak eta solidarioak.
- Inplikaturako hezkuntza-komunitate laguntzailea.
- Ikasteko metodologia berritzailea eta gaitasun teknologikoak.
- Proiektu berrietan parte hartzen duten pertsona konprometituak, asebateak.
- Kudeaketa aurreratua eta beharrezko baliabideak.

Baloreak

Gure nortasuna kontuan hartuta, ikasleak bultzatu nahi ditugu aukera libre eta arduratsuak egin ditzaten eta beren bizitzari zentzua emango dion balio-hierarkia irekia har dezaten.

Balioetan oinarritutako hezkuntzak bizitua izan behar du, eta horregatik ematen dizkiegu ikasleei esperientziak izaten, elkarrekin bizitzen eta partekatzen ikas dezaten. Ikastetxearen irakaskuntza- eta hezkuntza-lan guztia balio-proposamen horretan oinarritu behar da, eta honako hauek nabarmendu:

- Ahulari arreta
- Elkartasuna
- Talde-lana
- Konpromisoa
- Bikaintasuna
- Berrikuntza



Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa urteetan zehar aurreratua izan da. Izan ere, informatika gela garaia urrun geratzen da. 2007. urtean kontzeptu aldaketa bat burutu genuen, gela bakoitzak bere ordenagailu eta proiektorea izan zezan, bozgoragailuekin batera.

Proiektoreak oso erabilgarriak izan arren, aurrera pausu bat eman zen gela gehienetan arbel digital interaktiboak (PDI) ezarri. Bide hori jarraituz, 2012. urtean 65"ko 6 monitore interaktibo erosi ziren irakasle eta ikasleek zuzenean idatzi eta marraztu zezaten. Gaur egun teknologia desberdinak erabiltzen ditugu, baina espazio guztiek daukate bere proiektatzeko gailu propioa.

Irakasleen gailuei dagokionez, gelako ordenagailutik irakasle bakoitzeko ordenagailu eramangarrietara igaro genuen, irakasle guztiek bere gailu propioa izan zezaten. ONE TO ONE proiektua dela eta, 2015. urtean DBHko ikasle bakoitzak bere iPad-a izan zuen, eta geletako gailuetan aurkezpenak egin ahal izateko DBHko espazio guztietan Apple TV-ak jarri ziren, kable gabeko konexioa ezartzeko. Apple-ko ekosistema borobiltzeko, harrezgeroztik irakasleek ere bere iPad propioa daukate lanen jarraipena eta proiektzioa gauzatzeko.

2019. urtean beste hausnarketa bat egin genuen, eta horren ondorioz sistema aldatu genuen, Googleko Chromebook-etara igaro bait ginen. 4 urtetan zehar bi sistemek batera egin dute lan, eta irakasleriak mailaren arabera lanabes bat edo bestearekin egiten zuten topo. Gaur egun chromebooka daukagu baliabide bezala, LH3. mailako ikasleetatik hasita DBH4. mailararte, eta horrekin batera irakasleen gailua chromebooka da ere.

Hornikuntza teknologikoaren aldaketa ere nabaria izan da. Izan ere, Moodle propioa geneukan ikas plataforma bezala (LMS). Sistema mantzentzeko zailtasunak genituen eta 2021. urtean web orrialdearekin batera online ostatuta daukagu. Baina honek ez du esan nahi LMS bakarra denik. Chromebookak ezarri genituenetik Classroom plataformak indar handia hartu du, Googleko zerbitzuekin batera.

Ikastolak historikoki izan du bere zerbitzaria, windows plataforman oinarrituta. Active Directory bitartez kontrolatzen zen ikastolako pertsonen sarrera. Horretaz gain, Firewalla kontrolatzen duen sistema bertan instalaturik dago. Bertoko datuak NAS batean babesten dira, astero kopia inkrementalen bitartez babesteko. Gaur egun zerbitzari hori erabiltzen jarraitzen dugu, baina erabilera oso mugatua du, eguneroko dokumentazioa Google Driven gordeta daukagulako.

Gaur egun Ikastolan guztira 525 Chromebook, mahai-gaineko 9 ordenagailu, MacBook bat eta 70 iPad daude, honela banaturik:

- Irakasle bakoitzak Chromebook eta iPad bat dauka.
- Haur hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan 30 iPad erabiltzen dira.
- Lehen Hezkuntzako 3.mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.mailararte ikasle bakoitzak Chromebook bat dauka (ONE TO ONE)
- Zuzendaritza taldeko kide bakoitzak Chromebook bat dauka.
- Zuzendaria, administrariak eta idazkariak mahai gaineko ordenagailu bana daukate.
- Liburutegian, jantokian eta Mimio pantaila mugikorrean ordenagailu bana daude.
- iPadak kudeatzeko MacBook bat dago.

Gela guztietan arbel digitalak eta bozgoragailuak daude. Haur Hezkuntzan (8), Lehen Hezkuntzan (12), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan arbel digital interaktiboak (4) eta proiektoreak (6). ChromeCast bidezko konexioak erabiltzen hasi gara aurten proiektoreekin konexioak egiteko, baina bideoak jartzean ditugun abiadura arazoengatik momentuz 5 bakarrik ezarri dira.

Konektibitateari dagokionez, gela guztiak daukate ethernet konexioa, baina gailu mugikor kopurua ikusita lehentasuna eman zitzaion WIFI azpiegiturari. Bere garaian WIFI auditoretza baten ondorioz 20 Ruckus sarbide-puntu (AP) beharrezkoak zirela jakinarazi ziguten. Ruckus hauen etekina bermatzeko PoE bitartez konektatzea adostu zen, ethernet bitartez konexioa izateko. Horretarako Switch guztiak autogestionatuak eta PoE sistema kontrolatzen dute. VLAN-ak sorturik daude irakasle, ikasle eta gonbidatuen sareak bereizteko.

Esparru digitalean, gaur egun plataforma hauek erabiltzen dira:

- Windows zerbitzaria idazkaritza-zuzendaritzarako.
- Alexia plataforma familiekin komunikatzeko. Bertatik fakturazioa, notak, ez-etortzeak, zirkularrak, egutegia, ordutegiak, etab. kudeatzen dira.

- Moodle: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasleekin materialak elkarbanatzeko eta ebaluaziorako erabiltzen da.
- Google: Lehen Hezkuntzako 1.mailatik aurrera ikasle guztiek Googleleko email bat daukate.

Haur Hezkuntza.....

Lehen Hezkuntza.....

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Googleko suita (Gmail, Drive, Classroom) erabiltzen dira materialak elkarbanatzeko eta ariketak edo lanak egiteko. Beste alde batetik Kahoot, Liveworksheets eta Educaplay ariketa interaktiboak egiteko eta autoebaluaziorako ere erabiltzen dira.

Eguneroko arazoei aurre egiteko hornitzaile desberdinak ditugu mantenu lanak gauzatu ditzaten:

- Xenon enpresa arduratzen da Chromebooken konponketez.
- Lankidego Lantalde Ikastolako sareaz arduratzen da, baita Pantaila digitalak edo arbel digitalen mantenimenduaz.
- Fotokopiagailuak MSI System-en bitartez.
- Doble-clic erakundea da Web orria eta Moodlea mantentzen duena.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Artxandape Ikastolan ohartzen gara ziklo berri bati ekiteko atarian gaudela, eta ziklo hori inflexio-puntua izan daitekeela ikastetxeetako eraldaketa digitaleko proiektuetan.

Gure ustez, erronka handia da digitalki eskuduna den hezkuntza-erakunde bihurtzea, Europako erreferentzia-esparruen (DIGCOMP ORG eta DIGCOMP EDU) eta horri dagokionez diseinatzeko ari diren erakunde-politika berrien (Hezkuntza Digitaleko Europako Plana; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Digitaleko Eraldaketa Plana) arabera.

Testuinguru horretan, uste dugu Ikastola abiapuntu onean dagoela, azken hamarkadan arlo horretan egin dugun lan handiaren ondorioz. Era berean, jakitun gara eboluzionatzen jarraitu behar dugula, kalitatezko ikaskuntza digitala lortzeko, ikaskuntza inklusiboa, integratzailea eta egungo egoera aldakorrari erantzun eta egokitzeko gaitasuna duena.

Era berean, Ikastolaren ikuspegi globaletik aurrera egin nahi dugu. Horretarako, trebetasun digitalak dituzten langileak ditugu, digitalki gai diren ikasleak hezituko dituztenak, betiere ingurune seguru, arduratsu eta osasungarrien alde eginez.

Eta, azkenik, azken urte hauetan urrutiko ikaskuntzaren balizko egoerei dagokienez ikasitakoa, Ikastetxearen Proiektu Digitalean sartu nahi dugu.

IKT proiektuan teknologiak garrantzia galdu du, pedagogiak garrantzia hartuz.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Ikastolak IKT lan talde bat dauka eta IPD burutzea izango da beraien lehentasuna 2022-2023 ikasturte honetan. IKT lan taldea ostegunero 13:30-14:30etara batzartzen da eta irakasle hauek osatzen dute Zuzendariarekin batera: HHko irakasle bat, LHko 2 irakasle eta DBHko 2 irakasle. Lan taldearen burua DBHko irakaslea da eta bera izango da Ikastolako Mentore Digitala.

Lan taldea Ikastolako azpiegiturak eta dispositiboen konponketak kudeatzen ditu, baita irakasle zein ikasleen formakuntzak ere. Ikasturte honetan A1-A2 akreditazioan lagunduko dituzte gainontzeko irakasleak.

Proiektu digital hau egiteko beharrezkoa izan da 2022-2023 ikasturtean lan jarraitua. Horrela, prozesu honetan zehar, jarduera hauek eraman dira aurrera:

1. Ikastolako estrategia digitala ebaluatzea, lortutako eta oraindik lortu gabeko helburuak identifikatuz.
2. Ikastolako Zuzendaritzak, irakasleak eta ikasleak, SELFIE tresnaren bidez, nork bere buruari gogoeta egiteko prozesua garatzea.
3. Analisietatik ondorio egokiak atera dira, ebaluazio-tresna gisa DIGCOMP ORG hartuz. Horretarako Ikastola, eraldaketa digital honetan, markoak jasotzen dituen 7 terminoetan banatu dugu.
4. AMIA batean ateratako emaitzak laburtu dira.
5. DIGCOMP ORGan jasotako 7 arloetako bakoitzean lortu beharreko helburu estrategikoak definitu dira.
6. Egin beharreko ekintzen plana prestatu da, dagokion denboralizazioa zehaztuz.
7. Ebaluazio adierazleak eta jarraipena egiteko tresnak ezarri dira.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Heldutasun teknologikoaren eta hezkuntzaren eraldaketaren prozesua nola gauzatu behar genuen planteatzeko orduan, beti hartu dugu oinarri gisa ezin direla izan Ikastolako Hezkuntza Proiektuarekin lotutako ekimen bakanak eta loturarik gabeak.

Azken urteotan, hainbat urtetarako eraldaketa digitalerako planen arabera egin dugu ibilbidea. Plan horiek behar bezala eramane ditugu Ikastolako urteko planetara, eta arlo horretako helburu espezifikoak garatu ditugu, ebaluagarriak eta egiaztagarriak.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Digitalki eskuduna den hezkuntza-erakunde bihurtzeko eta Elkargoak DICOMP ORG proiektuan ezarritako helburuak zenbateraino lortu dituen zehazteko, ebaluazio-panel batean oinarritu gara. Panel horretan, 4 progresio-maila bereizten dira, DigCompOrg-en jasotako 7 arloekin alderatuta.

Esan behar dugu kasu batzuetan ez dela erraza izan abiapuntua zehaztea, baina panel horren bidez identifikatu dugu zein izango den datozen 2-3 urteetarako bidea, Ikastolako Plan Estrategikoari eta Hezkuntza Proiektuari jarraiki.

Proiektu digitala diseinatzeko SELFIEren bidez lortutako datuak ere hartu ditugu kontuan, eta txosten honetan jaso ditugu emaitzak.

DBHko partehartzea, zuzendaritza %100, irakasleak %100 eta ikasleak %85 (186/220) izan da eta beraietan oinarrituko gara analisia egiteko:

IRUDIA FALTA DA

Emaitzak orokorrean onak izan dira, hurrengo irudian ikus daitezkeenez.

Adierazgarria da Lidergoak eta Pedagogiak izan dituzten emaitz onak, esparru guztietan 4 baino gehiagoko puntuazioa lortuz.

Puntuazio baxuenak Etengabeko prestakuntzak eta Ebaluazioak izan dituzte, baina beti ere 3tik gorakoa izan da emaitza.

Ikasleak dira bloke guztietan emaitz baxuenak ematen dituztenak.

https://drive.google.com/file/d/1qUP2mSFUQm_QZx8miVh81V_cZhtmWovb/view?usp=sharing

AMIA analisisia
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Teknologia berriek dituzten abantailak eta desabantailen inguruan ez da ikasleekin eztabaidatzen.
Irakasleek ez dute parte hartzen beraien etengabeko prestakuntza profesionalaren beharrianak aukeratzeko.
Irakasleek baliabide digitalak sortzeko ez daukate denbora nahikoa.
Ikasleek, beraien ustez, lanarekiko inplikazio baxuagoa daukate teknologia digitalak erabiltzen dituztenean eta irakasleen ustez ikasleen elkarlana baxuagoa da ere momentu horietan. Hortaz esan genezake ikasleek teknologia digitalak erabiltzen dituztenean egin beharreko lanetik eskakeatzen direla.
Teknologia digitalen erabilera eskasa da ikasleek beraien ikaskuntzari buruzko hausnarketa egiteko eta baita ikasleek beraien lanen arteko koebaluazioa egiterakoan.
Ebaluazio-digital jarduera gutxi egiten dira.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Zuzendaritzak internet erabilera segurua bultzatzeko ikastaroak antolatzen dituen arren, irakasle eta ikasleen iritziz ikasleek ez dute ikasten segurtasunez jokatzeko.
Sarean dagoen informazioa fidagarria den ezberdintzeko, alde guztien ustez ez da ikasten.
Lotura falta dago euskarri fisiko eta digitalaren artean.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
Ikastolak estrategia digitala du eta irakasleekin garatzen du. Modalitate berriak ezartzeko zuzendaritza taldea eta irakasleen inplikazioa dauka.
Datuen babeserako azpiegiturak egokiak dira.
Irakasleek baliabide digital anitzak erabiltzen eta sortzen dituzte, hauen erabilera handia izanik.
Disziplinarteko proiektuak egiteko ohitura eta ezarpena.
Hezkuntza komunitate osoaren arteko komunikazio bideak oso egokiak dira.

Aukerak (kanpo-faktoreak)
Beste erakundeekin elkarlanean aritzeko teknologia digitalak erabiltzen ditugu.
Irakasle zein ikasleek irakaskuntza-ikaskuntzarako gailu egokiak dituzte, ikastolan zein etxean erabil daitezkeenak.
Ikasleei eduki digitalak sortzen irakasten zaie.

Autoebalualazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Ikastolak langileekin estrategia digitala garatzen jarraitu behar du, gainera horrek klaustroaren kohesioa eta beste entitate batzuekin kolaboratzea ekarri dezake.

Ikastolak datuen babeserako azpiegitura egokiak dituen arren, hauen mantenu eta berriztatzearekin jarraitu behar du, honek, segurtasun digitala emango dio hezkuntza komunitate osoari.

Sareko baliabideen erabilera eta sorrera onarekin jarraitzeko, baliabide horiek ordenatzeko guneak eskaini behar dira. Gainera ordena horrek, biltegi estilora erabilita, irakasle eta ikasleekin partekatu eta denontzako erabilgarriak izan daitezkeen baliabideen erabilera bultzatu ahal du.

Diziplinarteko proiektuak egiten jarraitzeko edukien sekuentziazioa eta bateraguneekin hasi daiteke. Horrela, diziplinaarteko proiektuak zehaztea errazago izan daiteke.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Ikastolak irakasleen formakuntzarako aukerak eskaintzen jarraitu behar du, barne formazioa, kolaborazioak edo bestelakoekin. Sarean dauden formakuntza ezberdinen informazioa helarazi behar die langileei, denbora izan dezaten aukeratutako formakuntzetan apuntatzeko.

Denbora aurreztu dezaketen baliabideen analisia egin eta hauen inplementazioa lehenestea baloratu, honekin etorkizunean irakasleek denbora gehiago izatea lortu daitekeelako.

Ikasleen kolaboraziorako gela birtualen erabilera eta horretarako baliabide desberdinen erabilera bultzatu. Modu honetan ikasleen arteko elkarlana errazteko aukera gehiago egon daitezke.

Autoebalualazio eta koebalualaziorako tresnen formazioa eskaini daiteke hauen erabilera sustatzeko.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Irakasleek erabiltzen eta sortzen dituzten baliabide digitalak ikasle eta familen esku jartzeak ikasleei informazio fidagarriak dituzten webguneak ezagutzera eta identifikatzera eramango ditu. Gainera sareko baliabideen bilaketa eta erabilera onarekin doako baliabide gehiago eskura izatea gerta daiteke eta ikastolako familien egoera ezberdinei ere baliabideak eskaintzea errazago egin daiteke.

Ikastolak irakasleekin estrategia digitala garatzeko jarrera ona duenez, barne formazioa indartu daiteke, mehatxu ekonomikoak murrizteko.

Disziplinarteko proiektuak egiteko ohitura eta ezarpena egokia denez, euskarri fisikoan dauden materialak digitalizatzeko pausua eman daiteke, eta bide batez aurretik komentatu dugun biltegian gorde.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Asistentzia teknikoa hobetzeko bestelako tekniko edo beste plataforma batzuekin lan egitea baloratu daiteke, modu honetan erabili gabe geratu daitezkeen baliabideen kopurua murriztu daiteke.

Autoebalualazio eta koebalualaziorako tresnen formazioa eskaini daiteke hauen erabilera sustatzeko eta irakaslearen partetik egon daitezkeen bide bakarreko balorazioa ekiditeko.

Denbora aurreztu dezaketen baliabideen analisia egin eta hauen inplementazioa lehenestea baloratu irakasleen denbora falta hobetzeko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Ikastolak langileekin estrategia digitala garatzea.
Lorpenen berri emateko aldian aldiko uneak ezartzea eta barnetik nahiz kanpotik ikusaraztea.

Deskriptorea

LG 3.1 Inplementazio-planaren inguruan elkar aditze eta konpromiso bat dago

Epea

2024/06/13

Adierazlea

LG 3.1 A1 Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu

Mota

Zenbakizkoa

Helmuga

4

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IPDa Ikastolako langile, familia eta ikasleei aurkeztea.	Alexia	Zuzendaria	2023/11/30	
Web orrian IPD publikatzea.	Web orria	Zuzendaria	2023/12/01	
Irakasleei beharrian digitalen inguruko galdetegia bidali, baliabide eta formakuntzaren inguruan.	Google Forms	Amaia Landajo	2023/09/07	
Selfie galdetegia pasatu irakasleei eta ikasleei	Selfie	Amaia Landajo	2023/09/29	
Irakasleei emaitzen berri eman.	Klaustroa	Amaia Landajo	2024/06/13	
Estrategia digitala urteko planean erantztea.	SIP	Zuzendaria	2023/09/28	
Selfie galdetegia pasatu irakasleei			2024/05/30	

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua		
Diziplinarteko proiektuak egiten jarraitzeko edukien sekuentziazioa eta bateraguneekin hastea. Horrela, diziplinaarteko proiektuak zehaztea errazago izan daiteke.		
Deskriptorea	Epea	
II 2.4 Eredu pedagogikoak hedatzen dira	2024/06/13	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.4 A2 Diziplinarteko proiektuak urteko programazioetan eta unitate didaktikoetan jasota daude.	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Curriculum berrira egokitutako sekuentziazioa egitea.	LOMLOE Plantilla	Jon Aguirre	2023/09/28	
Programazio berriak egitea.	LOMLOE Plantilla	Jon Aguirre	2023/09/28	
Site bat sortu ikastolan egunero erabili beharreko artxiboak bilduko dituen.	Google Sites	Jon Aguirre	2023/11/30	

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakasleen Konpetentzia Digitala hobetzea.

Deskriptorea		Epea
GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira		2024/06/13
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.5 A1 Irakasleei Prestgara, INTEF eta beste erakundetako ikastaroak egitera animatzen zaie.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Selfie For Teacher erabili irakasleen konpetentzia digitala ebaluatzeko. Emaitzak excel batean jaso.	Selfie For Teachers Google Forms	Amaia Landajo	2023/09/14	
Barne formakuntzak antolatu ikastolako beharrezanez lotuak.	Barne formakuntza	ZT	2023/10/26	
Kanpo formakuntzez langileak informatu	Prestgara Udako EHU	Nerea Gomez	2023/06/22	

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Autoebaluazio eta koebaluaziorako tresnen erabilera handitzea.

Deskriptorea	Epea
EJ 1.3 Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzen da.	2024/06/13

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.3 A1 Ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuak garatzeko erabiliko diren teknologia dig	Bai/Ez	Bai
EJ 1.3 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tek	Ehunekotan	100

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Autoebaluazio eta koebaluaziorako tresnen erabilerari buruzko formakuntzak antolatu.	Barne formakuntza Liveworksheets Kahoot Google galdetegiak Educaplay	Amaia Landajo	2023/09/28	
IIBeko plataformen errekurtsoak bateratu biltegi bat eginez	Sites	Jon Aguirre	2024/05/30	
Ikasleak eta familiak informatu IIBei buruz.	Sites, Alexia	Amaia Landajo	2024/05/30	

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Baliabide digitalen erabilera handitzea.

Deskriptorea		Epea
EC 1.2 Edukiaren biltegiak zabalki eta modu eraginkorrean erabiltzen dira		2024/06/13
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.2 A1 Departamentuak/mailek/zikloek, hilean behin gutxienez, eduki, jarduera, adibide eta/edo he	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Baliabide digitalen biltegi bat sortu.	Sites	Jon Aguirre	2023/11/30	
Irakasle guztien baliabide digitalak biltegian bateratu.	Sites	Jon Aguirre	2024/01/25	
Irakasleei sarean dauden baliabide digitalen erabilerari buruzko formakuntzak eskaini.	Barne formakuntza	Jon Aguirre	2024/05/30	

Helburua

Ikastolaren partehartzea kanpo proiektuetan mantentzea.

Deskriptorea		Epea
EN 3.1 Ezagutza elkarteen bidez trukatzeko konpromisoa agerikoa da		2024/06/13
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 3.1 A2 Ikastetxeak gutxienez konpetentzia digitala lantzeko proiektu instituzional batean parte hart	Zenbakizkoa	5

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Kanpo erakundeek antolatutako proiektuen zerrenda egin.	Lego League Zientzia Azoka STEAM EBI Jazotakoa jaso Homless film festival Unesmun	Ander Atxikaallende	2023/09/14	
Proiektuak aurrera eramateko ikastolan arduradunak esleitu.	SIP	Zuzendaria	2023/09/28	
Proiektuak aurrera eraman eta ebaluatu.	Google formularioa	Ander Atxikaallende	2024/05/23	
Sare Sozialen bidez hezkuntza komunitate osoa informatu.	Sare sozialak	Ander Atxikaallende	2024/05/23	

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Ikastolak IKT eta datuen babeserako azpiegitura egokiak dituen arren, hauen mantenu eta berriztatzearekin jarraitzea.		
Deskriptorea		Epea
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak		2024/06/13
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.1 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasturte hasieran plataformetara baimenak eman. (Google kontuak, Moodle, Drive karpetak, Alexia, Ikasgune...)	Google Admin Moodle Drive Alexia Ikasgune	Amaia Landajo Amaia Landajo Ander atxikaallende Edorta Alonso edorta Alonso	2023/09/28	
Ikasturte amaieran baimenak kendu.	Google Admin	Ander Atxikaallende	2024/07/15	
Langileei datuen babeserako araudia gogorarazi.	Emaila	Amaia Landajo	2023/09/14	
Ikasturte hasieran IKT azpiegituren diagnosia egin.	Google Formularioa	Amaia Landajo	2023/09/14	
Google formulario bat sortu egon daitezkeen matxurak kudeatzeko eta hezkuntza komunitate osoarekin partekatu.	Google Formularioa	Amaia Landajo	2023/09/04	
Jasotako intzidentziei erantzuna eman.	Emaila	Amaia Landajo	2024/06/21	

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua		
Irakasleek denbora aurrezteak.		
Deskriptorea		Epea
Denbora aurreztu dezaketen baliabideen analisia egin eta hauen inplementazioa lehenestea baloratu, honekin etorkizunean		2024/05/30
Adierazlea		Mota
Tecnologien erabilera mugatzen duten faktoreak atalean irakasleentzako denbora falta itemaren hobek		Ehunekotan
		55

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ekintza ezberdinetarako erabilitako denboraren analisia egin.	Behaketak Elkarrizketak Google galdetegia	Ane Falagan	2023/10/26	
Denbora aurrezteko baliabideak bilatu.	Beste ikastetxetako praktika onak	Ane Falagan	2024/01/25	
Denbora aurrezteko baliabideak inplementatu.	Klaustroa	Ane Falagan	2024/03/07	
Selfie galdetegia pasatu irakasleei	Selfie	Amaia Landajo	2024/05/30	



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastolak langileekin estrategia digitala garatzea. Lorpenen berri emateko aldiari aurreratuak ezartzea eta berrituak nahiz kanpotik ikusaraztea.	2024/06/13	SELFIE galdetegia A.2. irizpidea	Amaia Landajo		
II	Diziplinarteko proiektuak egiten jarraitzeko edukien sekuentziak eta bateraguneekin hastea. Horrela, diziplinarteko proiektuak zehaztea errazago izan daiteke.	2024/06/13	ISO 9001 auditoretzaren bidez	Gotzone Aguirre		
GP	Irakasleen Kompetentzia Digitala hobetzea.	2024/06/13	Irakasleak kanpo formakuntzen inguruan informatuak izan dira.	Amaia Landajo		
EJ	Autoebaluazio eta koebaluaziorako tresnen erabilera handitzea.	2024/06/13	Ikasleen eskura jarri dira autoebaluaziorako tresnak	Amaia Landajo		
EC	Baliabide digitalen erabilera handitzea.	2024/06/13	Maila bakoitzeko baliabide digitalak Sites biltegian jarri dira, mailak eta arloak ordenaturik.	Amaia Landajo		
EN	Ikastolaren partehartzea kanpo proiektuetan mantentzea.	2024/06/13	Kanpo erakundeek antolatutako 5 proiektuetan parte hartu da.	Amaia Landajo		
AZ	Ikastolak IKT eta datuen babeserako azpiegitura egokiak dituen arren, hauen mantenu eta berriztatzearekin jarraitzea.	2024/06/13	Jasotako intzidentziei erantzuna eman zaie.	Amaia Landajo		
IB	Irakasleek denbora aurreraztea.	2024/06/13	SELFIE galdetegia (Teknologia erabilera mugatzen duten faktoreak) irizpidean irakasleentzako denbora falta ehunekoaren balioa.	Amaia Landajo		